

Jaiotzak %0,7 urritu ziren 2014ko hirugarren hiruhilekoan

Ezkontzaz kanpoko jaiotzak guztien %40

2014ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEn 4.940 haur jaio ziren, 2013ko aldi berean baino %0,7 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Bizkaian 2.487 haur jaio ziren, %-3,6; Gipuzkoan 1.606, %-0,6. Araban 847, %+8,7.

Amen %80k 30 urte baino gehiago ditu

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, ikusiko dugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere nagusi dela argi eta garbi, haien artean gertatu baitziren erditzeen %37,8. Ondoren, goragoko taldea dago, 35-39 urte artekoa, %35,1; 25-29ko taldean %13,3. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtez behera amaten direnak %6,2; 39 urtez gorakoenean %7,7.

Ezkontzaz kanpoko jaiotzak guztien %40, aurreko urteko aldi berean %38. Amen batez besteko adina, 33,2 urte. Ama ezkonduen artean, 33,6 urte; ezkongabekoena 32,4, dibortzatuena %35,7 eta alargunena (3 emakume) 35,3 hiruhileko horretan.

Ama atzerritarrek espainiarrek baino 3,7 urte gutxiago dituzte

2014ko uztail, abuztu eta irailean Euskal AEn amatutakoen arteko %18,8 atzerritarrak ziren. Ehuneko horren gainetik, Araba, %26; Bizkaian %17,5, Gipuzkoan %17,2.

Amatzeko adina aldatu egiten da naziotasunaren arabera. Atzerritarrena, 30,2 urte batez beste; espainiarrena, 33,9.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2014ko udan, erdiak baino gehiago, 2.660, lehen haurrak; 1.826 (%37) aurretik beste bat bazen familietara iritsi ziren; hirugarren eta ondorengoak %9,2.


Aurreneko haurra izan duten emakume kopurua %2,3 jaitsi da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean; bigarrenarena %0,5 gehitu eta ondorengo seme-alabena %4,4 gehitu.

1. taula: Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak. Alderaketa taula

	2014ko 3. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2014ko 2. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2013ko 3. hiruhil.)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.940	100,0	4.948	100,0	4.974	100,0
Araba / Álava	847	17,1	826	16,7	779	15,7
Bizkaia	2.487	50,3	2.531	51,2	2.580	51,9
Gipuzkoa	1.606	32,5	1.591	32,2	1.615	32,5
Amaren adinaren arabera	4.940	100,0	4.948	100,0	4.974	100,0
≤ 24 urte	304	6,2	287	5,8	267	5,4
25 - 29 urte	658	13,3	694	14,0	655	13,2
30 - 34 urte	1.866	37,8	1.935	39,1	1.915	38,5
35 - 39 urte	1.733	35,1	1.660	33,5	1.736	34,9
≥ 40 urte	379	7,7	372	7,5	401	8,1
Amaren egoera zibilaren arai	4.940	100,0	4.948	100,0	4.974	100,0
Ezkondua	2.965	60,0	3.043	61,5	3.085	62,0
Ezkongabea	1.975	40,0	1.905	38,5	1.889	38,0
Amaren naziotasuna	4.940	100,0	4.948	100,0	4.974	100,0
Espainiarra	4.010	81,2	4.084	82,5	4.109	82,6
Atzeritarra	930	18,8	864	17,5	865	17,4
Jaiotza-hurrenkera	4.940	100,0	4.948	100,0	4.974	100,0
Lehenengoa	2.660	53,8	2.536	51,3	2.722	54,7
Bigarrena	1.826	37,0	1.947	39,3	1.817	36,5
Hirugarrena edo gehiago	454	9,2	465	9,4	435	8,7

Iturria: Eustat. Jaiotzen estatistika

Euskal AEn erregistratuta dauden eta Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak. Hileroko datuak



Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko jaiotzen estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko jaiotzen estatistikari buruzko datu-bankua